

4. GAIA

Albotik kargatzeko bilketa-sistema

Zerbitzuaren deskribapena

Zerbitzua albotik kargatzen diren tamaina handiko (3.200 litrorainoko) edukiontzietan lagatako hondakinak biltzea da, horrek eraginkortasun handiko sistema bihurtzen duelarik. Izenak adierazten duen bezala, edukiontzia albotik kargatzen diren bilketa-ibilgailuen bidez batu eta hondakin-mota bakoitzari dagokion tratamendu-zentroraino garraiatzen da.

Erabiltzaileak behar bezala itxitako poltsetan aurkeztu behar ditu bere hondakinak eta gero kalean dauden eta, hondakin mota bakoitzari dagokion edukiontzia erraz bereizteko, oso ondo identifikaturik eta seinaleztaturik dauden eta atzetik kargatzen diren edukiontzi normalizatueta utzi.

Hondakinak aurre-bilketako ontzietatik ibilgailuetara aldatzea da sistema honen oinarria, eta ibilgailuetan zanpatu edo trinkotu egiten dira (gai organikoak izan ezik, hauek ez baitira trinkotu behar, gero konpostaje egokia bermatzeko) pisu espezifikoa gehitzeko eta hartzen duten bolumena murrizteko, honela zerbitzuaren kostu-mailak eta produktibitatea arrazionalizatuz. Albotiko bilketak berezitasun batzuk ditu, gainerako bilketa-sistemetatik bereizten dituenak.

- Edukiontziak edukiera handiagokoak (2.400 edo 3.200 litrokoak) dira, eta estatikoak.
- Ibilgailua eskuineko aldetik bakarrik iristen da edukiontzietara.
- Hondakin guztiek edukiontzien barruan egon behar dute, sistemaren eraginkortasuna bermatzeko.
- Edukiontziek oztoporik (gaizki aparkaturiko auto eta abar) gabe egon behar dute, kamioia edukiontzira hurbildu ahal izateko.
- Herritarren laguntzak erabatekoa izan behar du.



Metodologia operatiboa

Biltzailearen bilketa-prozesua langile bakar batekin egiten da, ibilgailuaren gidariarekin, eta honek kamioitik jaitsi beharrik gabe egiten ditu bere lanak. Bere zereginak betetzeko, kabinan jarritako aginte-koadro batez baliatzen da gidaria. Ibilgailuaren toki estrategikoetan jarritako (6-8) telebista-kamerez ikusten ditu lan guztiak.

Aginte-koadroak bi telebista-monitore ditu, eta ekipoaren zentratzea ikusten da edukiontzia-erretan, eta hau kargatzeko, husteko eta deskargatzeko prozesuaren bilakaera.

Zerbitzu honen premisa da hondakinak poltsetan itxita atera eta behar bezala lagatzen dituztela herritarrek edukiontzietan, albotik kargatzeko bilketa-kamioiek batu ditzaten.

Edukiontziren bat dagoen lekura ekipoa iristen denean, zentratu egin behar du ibilgailua kargatu ahal izateko. Horretarako, ekipo jasotzailearen erdian jarritako kamera batez, “ENPI barrak” deiturikoez, baliatzen da. Jarraian karga eta deskarga edo zamalanak hasten dira, honako fase hauetan banatuta:



1. fasea: “ENPI” segurtasun-barrak jaitea. Barra hauek zamalan edo karga- eta deskarga-maniobrak segurtasun osoz egitea bermatzen dute. Oztoporen bat dagoelako, barra hauek ez badira horrela jaisten, zamalanak blokeatu egiten dira automatikoki.
2. fasea: Kamioi-gidariak beso artikulatu batzuen bidez jasotzen du, eta ekipoaren eta edukiontzia-aren arteko distantzia 2.121 eta 3.900mm artekoa izan daiteke, horien artean paralelismo-akatsak konpentsatzeko aukerarekin. Kokapen zehatza memorizatu egiten du gero posizio berean jartzeko.
3. fasea: Edukiontzia automatikoki jasotzen da juxtu kabinaren atzean dagoen kargako tobera gaineraino.
4. fasea: Edukiontzia astintzea langileak nahi bezala, ontziaren barrua toberan jarritako kameraz ikus dezakeelarik, hondakin guztiak hustu diren edo ez egiaztatzeko. Gainera, foku batek argitzen du deskarga-gunea, dena ondo-ondo ikusteko.
5. fasea: Lehen fasean memorizatutako posizioan automatikoki jartzea edukiontzia. Posizio hori zuzen daiteke, edukiontzia-aren hasierako kokapena zuzena ez bada.
6. fasea: Jasogailua hasierako posiziora itzultzea eta ENPI segurtasun-barrak erretiratzea, ibilgailuak bide publikoan zirkulatzeko ezinbesteko baldintzak.

Hondakinak toberara bota ostean, zapaldu edo prentsatu egiten ditu (organikoak izan ezik, hauek ez baitira trinkotu behar gero konpostaje egokia ziurtatzeko) justu bere azpian dagoen trinkotze-plakak, egozte-plakarekin multzo bakarra osatuz, eta edukiontzia-aren iraulketa ahalbidetuz.

Albotik biltzeko sistema segurua da eta erruz probatua; beraz, karga-lanetan hondakinak espaloi eta galtzadetara isurtzeko aukerak minimoak dira. Hala ere, azken hau gertatuz gero, berehala jaso behar da, eta horretarako, irratigorgailuaren bidez, zentralari eman behar zaio gertatuaren berri, berehala garbi dezan leku hori.

Bilketa-ibilgailua beteta dagoenean, tobera dagokion tratamendu-zentrora joango da hondakinen deskarga egiteko. Deskarga plaka eiektore batek egiten du, sekuentzia automatikoan urrutiko agintea erabilita edo eskuz.

Bilketa-lanak amaitutakoan, nabe-garajera joango dira ibilgailuaren garbiketa egitera.

Ekipoen izaera eta osaera

Ekipo hauek 15m³ - 28m³ko ibilgailu trinkotzaileak dira, eta bakoitzaren lantaldea kamioi-gidari bat da.

Ohiko sistemekiko onurak

- Jarri beharreko edukiontziak edukiera handikoak (2.000-3.000 litrokoak) dira eta ez dute gurpilik.
- Hala ere, edukiera handiagoko edukiontziak erabiltzeak ez du esan nahi nabarmen gutxitzea bilketa-guneen kopurua, herritarrei hurbileko zerbitzua eskaintzea baita kontua.
- Sinpletasuna edukiontziak irekitzeko sistemarekin.
- Edukiontzien itxitura hermetikoa.
- Ibilgailu isilagoak.
- Langile bakarra kamioi bakoitzeko.

Bilketa-sistema honen muga bakarra da inoiz ezin dela hondakinik egon edukiontzietatik kanpo, hori gertatuko balitz sistemak automatikoa izateari utziko lioke eta. Hala ere, ezin da saihestu norbaitek uneren batean ez betetzea ezarritako arauak eta horregatik beharrezkoa da berrikuste-ekipo (edukiontziak eramateko ibilgailu) baten parte hartzea, langile batek eta kaxa irekiko ibilgailu arin batek osatua.

Berrikusteko zerbitzu honen zereginak honela labur daitezke:

- Bere neurriengatik, albotik kargatzeko bilketa-ibilgailua ezin bada bilketa-gune batera iritsi, edukiontzia eramateko ibilgailuak albotik kargatzeko ibilgailuarentzat egokia den lekuraino eramango du edukiontzia. Gero, berriro bere lekuan jarriko du edukiontzia.
- Beren kokalekutik mugitu diren edukiontzia dagokien lekuan jartzea.
- Edukiontzia oztoporik (adibidez, edukiontzien ondoan lagatako hondakin handirik) gabe uztea, zailtasunik gabe jaso ahal izan ditzan bilketa-ekipoak.
- Edukiontzien barruan laga gabeko poltsak eta hondakinak batzea eta edukiontzien barruan lagatzea. Berrikuste-zerbitzua bilketa-kamioia iritsi baino 30 minutu lehenago egiten da, edukiontzia normaltasunez jasotzea eragozten duten poltsak edo kartoiak kentzeko gidariak bere ibilgailutik jaitsi beharrik izan ez dezan.

Atzetik kargatzeko bilketa-sistema

Atzetik kargatzeko edukiontzi kolektiboetan edo/eta banako edukiontzi eta poltsetan (atez ateko sisteman) lagatako hondakinak biltzea da zerbitzua. Izenak adierazten duen bezala, atzetik kargatzen diren bilketa-ibilgailuen bidez jasotzen da edukiontzia eta tratamendu-instalazioetaraino garraiatzen dira, bai bilketa egiten duten ekipoek eurek, distantziak laburrak direnean, bai Transferentzia Planten bidez, bilketa egiten den herriaren eta tratamendu-zentroaren arteko distantzia handi samarra denean.

Erabiltzaileak bere hondakinak behar bezala itxitako poltsa edo tresnetan jarri behar ditu eta gero bide publikoan oso ondo identifikaturik eta seinalezaturik dauden atzetik kargatzeko edukiontzi normalizatuetan nahiz atez ateko sistemaren ontzi eta poltsak lagatzeko esekitokietan utzi.

Sistema honen oinarria da hondakinak ibilgailuetara aldatzea, non trinkotu edo zanpatu egiten diren (salbu gai organikoak, hauek ez baitira trinkotu behar, gero konpostaje egokia bermatzeko) pisu espezifikoa gehitzeko eta hartzen duten bolumena murrizteko, honela zerbitzuaren kostu-mailak eta produktibitatea arrazionalizatuz.



Metodologia operatiboa

Gidariaren eginkizuna ibilgailua gidatzea izango da; langileak berriz bi estribo edo ointokietan joango dira (hiri-ibilbideetan bakarrik) edo ibilgailuaren barruan (hiri eta hiriarteko ibilbideetan). Bilketa-gune bakoitzean, peoiek ontziak eta edukiontziak hurbilduko dituzte husteko, kamioiaren tratu txarrak eta isuriak saihestuz.

Bilketa-langileak edukiontziak kamioi trinkotzailearen toberan hustuko dituzte, eta beteta dagoenean, Transferentzia Plantaraino garraiatuko dute karga, eta han egingo da horren hustuketa.

Bilketa-lanak amaitutakoan, nabe-garajera joango dira ibilgailuaren garbiketa egitera. Bilketa-zerbitzua ahalik eta konturik handienaz egingo da hondakinik ez isurtzeko espaloi edo galtzadetan. Ezusteko zirkunstantziengatik azken hau gertatzen bada, berehala jaso behar da isuritakoa, eta beraz ekipo bakoitzak zeregin horretarako behar den materiala eramango du. Hala ere, zerbait gertatzen bada, bilketa-ekipoek konpondu ezin duten tamainakoa, hauek, komunikazio-ekipoen bidez ohartaraziko dute, gertakizun hori ahalik eta azkarren konpontzeko, horrela bermatuz zerbitzuaren funtzionamendu ona.

Ekipoen izaera eta osaera

Atzetiko bilketa ohikoa ekipo biltzaile trinkotzaileaz egiten dute gidari batek eta peoi batek edo bik.

Sistemaren abantailak

Leku gutxiago galtzadan. Edukiera handiko edukiontziak ez direnez, galtzadan hartzen duten lekua ez da larregizkoa.

Bilketa-denbora laburragoa. Bilketa-denbora laburra da. Peoien laguntzaz kamioiak arin eta laster egiten du edukiontzien bilketa.